

IV

BILBOKO
HIRUHILEKO
KOIUNTURA
TXOSTENA
2021

Bilbao Observatorio

LABURPENA

2021. urtea ixtean lan merkatuak eta ekonomiak izandako emaitzek baieztatu dute ekitaldian zehar hobekuntza erregistratu zela, baina kutsatzeen ondorengo ondoko olatuek moteldu egin dute aipatutako hobekuntza hori; hala, laugarren hiruhilekoa eta 2022ko lehen asteak baldintzatuta egon dira, artean zenbait murrizketa indarrean izan direlako, bai pertsonak biltzeko, bai jarduera guztietan berreskurapen kaudimenduna lortzeko.

2021. urteak jarduera ekonomikoa eta enplegua berreskuratzen ari

Tamalez, otsailaren 24tik, Errusia-Ukraina arteko gatazka belikoak eten egin du ibilbide hori: argi dagoenez, gerra batek eragiten dituen ondorio negatiboez, krisi humanitarioaz eta populazioaren ihes masiboaz gain, ondorio ekonomikoak dagoeneko antzeman ditugu. Hala ere, gerra horren ondorioen artean inpaktu tartea oso zabala izango da; energiaren merkatuan ekarriko duen efektua nabarmendu behar da, ziurgabetasun faktore berriak sartuko baitira, energiaren prezioak maximo historikoetara eramanez.

Errusia eta Ukraina arteko gatazka belikoa da krisiaren foku berria...

Inpaktuaren mailaketa iraupenaren arabera izango da, eta pandemiak eragindako krisiaren irtenbidea bezala, nazioarteko fronte erreaktiboa aurkezteko gaitasunaren arabera, non lan nagusia (diplomatikoaz gain) zigor ekonomikoak ezartzea, interes tasak igotzearen iragarpenak eta diru politika zabalgarrien amaiera atzeratzea izan den.

...eta COVIDaren ondorengo berreskurapena finkatzea urruntzen du

Hala, erakunde nagusiek adierazi dute 2022. urterako hazkunde ekonomikoko proiektzioak berrikusi egingo dituztela, 2022. urteko urtarrilera arte egindakoak dagoeneko zaharkituta geratu baitira. Hala ere, eta urteko erreferentzia modura, NDFk aurreratu zuen hobetzeko bidean jarraituko dugula 2022an (+% 4,4) eta 2023an (+% 3,8); ekonomia aurreratuek jardun positiboa izango dute (+% 3,9 eta +% 2,6), baita hazten eta/edo garatzen ari direnek ere (+% 4,8 eta +% 4,7). Proiektzio horiek COVIDaren ondorengo normalizazioaren hedapena izan zuten oinarri (nazioarteko trafiko fluxuak erregulatzea, hornidura kateetan desdoikuntzak eta prezioen igoera moteltzea, bereziki energetikoak); gerrak nabarmen baldintzatuko du normalizazioaren hedapen hori.

...2022 eta 2023ko hazkunde aurreikuspenak murriztu egingo dituelako

Horren haritik, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspen makroekonomikoak (2021eko abendua) berrikusi egingo dira (2022an +%6,7) eta garrantzitsuak izan daitezke (gutxienez ehuneko puntu bat Espainiako ekonomian).

2021eko laugarren hiruhilekoko Hiruhileko Ekonomia Kontuek (Eustat) berreskurapena berretsi dute eta 2021. urtea EAEn hazkunde ekonomikoarekin (+% 5,6) eta enpleguaren hazkundearekin (+% 5,5) ixtea ahalbidetu dute; iragarritakoa baino baxuagoak izan dira.

EAEn gora egin dute BPGk (+% 5,6) eta enpleguak (+% 5,5) 2021ean

Bilboko jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren adierazleak bat datoz euskal ekonomian izandako hobekuntzarekin. Horrela, Bilbon 179.776 pertsona afiliatu zeuden Gizarte Segurantzaren (abenduan), urte batetik bestera % 0,5eko igoerarekin, baina oraindik 2019ko itxiera datua baino baxuagoa da (-% 1,7). Araubide Orokorrean (+% 0,7, urte arteko tasan) eta etxeko enpleguan (+% 0,3) afiliazioak aurrera egin duelako lortu da emaitza hori; enplegu autonomoan (-% 0,2) eta beste araubide batzuetan (-% 5,8) izandako beherakadak orekatzen dira.

Bilbon afiliazioak hobera egin du (+% 0,5 urte arteko tasan)

Bestalde, 2021eko laugarren hiruhilekoan 38.814 kontratu erregistratu ziren (+% 15,0 eta +% 30,8, hiruhileko eta urte arteko tasan), eta horrek lan dinamismoaren susperraldia berresten du, baina, hala ere, 2019an erregistratutako kontratuak baino % 11,4 txikiagoa izaten jarraitzen du.

Eta kontratu berrien bolumena handitu egin da (+% 30,8 urte arteko tasan)

Kontratazioa berreskuratzea handiagoa izan da emakumeen kasuan (+% 32,6) gizonen kasuan baino (+%29,1, urte arteko tasan). Eta hobekuntza hori adin talde guztietan ikusi da, eta nabarmentzekoa da 24 urtetik beherakoen (+% 77,2) eta 45 urtetik gorakoaren (+% 27,9) artean izandako gorakada, 25 eta 34 urte bitartekoaren (+% 21,6) eta 35 eta 44 urte bitartekoaren (+% 16,5) aldean, urte artekoan hobekuntza txikiagoekin.

Hiruhileko eta urte arteko hobekuntza orokorra izan da, gehienbat 24 urte baino gutxiagoen artean

Kontratu berrien urte arteko hazkundea aldi baterako osagaian (+% 27,5) eta mugagabeen (+% 64,8) oinarritzen da, 4.354 kontratu berri hartuz; hiribilduko enpleguaren oinarria finkatzen da horrela. Era berean, zerbitzuen jardueren hazkundea nabarmendu behar da (+% 35,1) eta, neurri txikiagoan, industriak eta energiak (+% 5,3) eta eraikuntzak (+% 9,1) izandakoa. Laburbilduz, kontratu berrietan hobekuntza nabarmen batekin itxi da 2021. urtea (hiruhileko arteko tasetan eta urte artekoetan), baina oraindik ez da pandemiaren aurretik (2019) erregistratutako bolumenera iritsi.

...batez ere kontratazio mugagabeak egin du gora (+% 64,8), baina baita aldi batekoak ere (+% 27,5)

Bilbon erregistratutako langabeziak beherantz egiten jarraitzen du, urte arteko beherakada nabarmen batekin (-% 12,0); horri esker, 2021. urtea 22.131 pertsona erregistraturekin itxi ahal izan da; 2019. urtekoa baino zifra baxuagoa da (22.300).

Erregistratutako langabezia tasa pandemiaren aurreko mailetan dago dagoeneko

Xehekako emaitzek argi utzi dute murrizketa hori nahiko modu orokortuan hedatzen dela, baina ñabardurekin. Alde batetik, emakumeen taldean izandako beherakada (-% 11,1) gizonena baino apur bat baxuagoa da (-% 13,0); hala, erregistro horretan emakume gehiago dago gizonak baino (12.061 eta 10.070). Bestalde, murrizketarik txikiena adin nagusieneko taldeari dagokio (-% 5,9, 45 urte eta gehiago) ; talde jendetsuena da oraindik ere (12.183 pertsona, guztiaren % 55,0). Eta, azkenik, onura txikiena lortu duten bi taldeak langabezian denbora gehien daramaten bi taldeak dira eta, zehazki, 2 eta 3 urte artean langabezian daraman taldeak gora egin du (+% 3,5) eta langabezian 3 urte baino gehiago daraman taldeak beherakada arina izan du (-% 3,1).

Eta murrizketa talde guztietara hedatu da

Jarduera ekonomikoari buruzko datu eskuragarriek berretsi dute laugarren hiruhilekoa, oro har, oso positiboa izan dela. Horren haritik, 2021eko laugarren hiruhilekoan merkataritzaren sektoreko salmentek gora egin zuten (+% 9,9), eta handizkako (+% 16,4) eta txikizkako (+% 6,0) segmentuetan berreskuratu egin da; ibilgailuen salmenta eta konponketaren segmentuak, berriz, atzera egin du berriz ere (-% 9,7). Oro har, merkataritzaren sektorean enpleguak hobera egin du hirugarren hiruhilekoz jarraian (+% 3,1).

Laugarren hiruhilekoan, merkataritzaren sektorean gora egin dute salmentek (+% 9,9) eta enpleguak (+% 3,1)

Bidenabar, Bizkaiko merkataritza gunen handien salmenta indize orokorrak gora egin du berriz ere (+% 2,4), eta aurreko hiruhilekoetako hazkunde sekuentziari eutsi dio. Gainera, enpleguak nabarmen egin du gora (+% 6,6).

...eta saltoki handietako salmentek (+% 2,4) eta enpleguak (+% 6,6) ere gora egin dute

Ibilgailu berrien salmenta eta matrikulazioa oraindik zenbait faktorek baldintzatzen dute, oro har, 2019. urte amaieran antzematen zirenak; horien artean daude, besteak beste, motorizazio zahar eta berrien inguruan sortutako ziurgabetasuna (fiskalitatea eta/edo mugak emisioetan), edo ibilgailu aldaketa finantzatzeko baliabide publikoen bolumena; horri gehitu behar zaio 2021ean zehar erdieroaleak hornitzeko zailtasunak izan direla.

Hala, 2021eko laugarren hiruhilekoan, Bizkaian ibilgailu berrien salmenta eta matrikulazioa 3.057 unitatekoa izan da; hala, urte osoan 12.456 unitatera iritsi da, eta urte arteko beherakada izan du berriz ere (-% 31,2). Ekitaldiko datua oraindik ere oso urrun dago pandemia aurreko zifretatik (20.268 unitate 2019an).

Ibilgailu berrien salmentetan berriz ere beherakada izan da (-% 31,2), eta urteko zifra oso baxua da

Turismo jarduerak laugarren hiruhileko positiboa izan du (391.519 eta 211.950, ostatu gauak eta bidaiariak), baina oraindik 2019ko aldi berean lortutako datuak baino zifra baxuagoak dira (63.218 eta 29.945 ostatu gau eta bidaiari gutxiago). Izan ere, eta 2019ko laugarren hiruhilekoarekin erkatuta, hobekuntza estatu mailako segmentuaren jokabideari dagokio (+% 0,7 eta -% 1,5 ostatu gau eta bidaiarietan), nazioarteko segmentuan baino, azken horren mugikortasuna oso mugatua egon baita (+% 33,2 eta -% 29,1 ostatu gau eta bidaiarietan).

Turismo jarduerak hobera egiten jarraitu du laugarren hiruhilekoan, baina 2019ko erregistrotik urrun

Pandemia osteko berreskurapen profila arriskuan jarriko da Errusia-Ukraina gatazka belikoaren ondorioengatik; batetik, nazioarteko bidaiarien fluxuak mugatu egingo direlako, eta estatu mailako segmentuari kalte egingo diolako (gastu gaitasuna), nahiz eta gertuko helmugak berriz ere alternatiba interesgarri modura jarri.

...estatu segmentuan oinarrituta, nazioarteko segmentu oso neurridun baten aurrean

Loiuk 919.617 bidaiariarekin eta 8.788 operazioarekin itxi zuen 2021eko laugarren hiruhilekoa; zifra horiekin, 26.429 operazio eta 2,5 milioi bidaiari baino gehiagorekin itxi da ekitaldia. Bada, hirugarren eta laugarren hiruhilekoaren lan onak (urteko bidaiarien bolumenaren % 83 ematen du) ezin du orekatu lehen sei hilekoa erabat pobrea izan dela, nazioarteko jardun baxuak erabat baldintzatutakoa.

Loiuk 2,5 milioi bidaiari pasatxorekin itxi zuen 2021a

Bilboko Portuko jardunak gora egin du laugarren hiruhilekoan (+% 8,1 eta +% 38,3, hiruhilekoen arteko tasan eta urte arteko tasan), eta urteko balantzea 31,3 milioi tonatan ixten lagundu du; zifra hori 2019koa baino baxuagoa da (-% 12,0).

Portuko trafikoak behera egin du (-% 1,0 hiruhileko arteko tasan)

Bizkaiko jarduera industrial hobetzeko bidean mantendu da eta laugarren hiruhileko oso positiboa gehitu du (Industria Ekoizpenaren Indizea, +% 5,5 urte arteko tasan); hiru hileko jarraian egin ditu hobetzen. Emaizta horretan laguntzen dute industria enplegatuaren sektoreak (+% 2,5), erauzketakoak (+% 28,6) eta energia, gas eta lurrun sektoreak (+% 30,7); uraren sektorean izandako atzerakada orekatzen dute (-% 6,1). Zenbait produktu eta lehengai hornitzean "botila lepo" deitutako zailtasunen baldintzapean egon da jarduera, eta horri gehitu behar zaio energia garestitzea; hala ere, gatazka belikoa agertu arte agertokiak adierazten zuen 2022ko lehen zatia positiboa izango zela.

Bizkaiko industria jarduera berreskuratu egin da...

Azkenik, merkatu zerbitzuen jarduerak hiru hiruhileko positibo batzea lortu du, eta laugarren hiruhilekoa nabarmena izan da salmenta eta enpleguan (+% 14,2 eta +% 0,4 urte arteko tasan), eta hainbat jardueratan izandako salmentek bultzatu dute emaitza hori, besteak beste, ostalaritzan (+% 50,0), garraioan eta biltegiatzean (+% 31,7), beste batzuen ahultasuna orekatuz, esaterako zerbitzu profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (-% 4,9).

Eta merkatuko zerbitzuak ere

Azken finean, Bizkaia Barne Produktu Gordinaren (BPG) eta enpleguaren urte arteko hazkunde nabarmenarekin itxi du 2021. urtea (+% 5,3 eta +% 5,7, hurrenez hurren), eta urtean zehar hobekuntza finkatu da, baina ezin izan da 2019ko emaitzetara iritsi.

Lurraldeko enplegu eta BPGren berreskurapena finkatzen (+% 5,3 eta +% 5,7)...

Laburbilduz: hiribilduak aurreratutako hobekuntza aurreikuspenak berretsi duen laugarren hiruhilekoa osatu du, lan merkatuko adierazleen balantze positiboarekin eta industria eta zerbitzu jardueren bultzadarekin, batez ere turismoari eta ostalaritzari lotutako jarduerak berreskuratuz, faktore bereizle modura.

2022ko otsaila amaierara arte adierazle guztiek azaldu zuten urte hasierako hobekuntzak jarraitu egingo zuela; inflazioa kudeatzea zen orduan eragozpenik handiena. Gaur egun, balorazio oro zaharkitua da, Errusia-Ukraina gatazka belikoaren ondorio ekonomiko eta finantzarioek ilundu dute, eta horren onura bakarra da pandemia igaro berria bigarren plano batera eraman dutela.

Gatazka belikoaren ondorioek nabarmen baldintzatuko dute egoera

TESTUINGURUA

Munduko ekonomia

2021eko laugarren hiruhilekoan berreskurapen ekonomikoa moteldu egingo dela berretsi zen, kutsatzen ondoz ondoko olatuek baldintzatuta, txertatze kanpainak eta, are gehiago, hirugarren dosia (orokortua) hartzeko kanpainak aurrera egin arren. Azken finean, 2021. urtea pandemiaren bigarren urtea izan da dagoeneko. Hala, Nazioarteko Diru Funtsak (2022ko urtarrila) adierazi zuen 2021eko berreskurapena nabarmena izan zela, eta 2022an eta 2023an mantenduko dela (+% 4,4 eta +% 3,8); 2021ean gertatu ez zen berreskurapena ekitaldi horietara eraman du. Erakunde horrek egindako aurreikuspenetan AEBetan (+% 4,0 eta +% 2,6) eta Eurogunean (+% 3,9 eta +% 2,5) espero den hazkunde ekonomikoa antzekoa dela nabarmendu da. Eta Euroguneke herrialdeen artean, 2022. urterako Espainiako (+% 5,8) eta Alemaniako (+% 3,8) aurreikuspenak hobek dira 2021ean izan duten jarduna baino; Frantzia (+% 3,5) edota Italiaren (+% 3,8) egoera justu aurkakoa da, 2021ean baino gutxiago haziko baitira.

Mundu mailako hazkunde ekonomikoa 2022an eta 2023an % 4,4 eta % 3,8koa izango da.

Hazkunde ekonomikoan (BPG) egindako aurreikuspenak

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	Urri-21		Urt-22		
	2021	2022	2021	2022	2023
MUNDUKO BPG	5,9	4,9	5,9	4,4	3,8
Ekon. aurreratuak	5,2	4,5	5,0	3,9	2,6
Ameriketako Estatu Batuak	6,0	5,2	5,6	4,0	2,6
Eurogunea	5,0	4,3	5,2	3,9	2,5
Alemania	3,1	4,6	2,7	3,8	2,5
Frantzia	6,3	3,9	6,7	3,5	1,8
Italia	5,8	4,2	6,2	3,8	2,2
Espainia	5,7	6,4	4,9	5,8	3,8
Hazt./Garat.	6,4	5,1	6,5	4,8	4,7
Txina	8,0	5,6	8,1	4,8	5,2
India	9,5	8,5	9,0	9,0	7,1
Brasil	5,2	1,5	4,7	0,3	1,6
Errusia	4,7	2,9	4,5	2,8	2,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (data bakoitzari dagozkion aurreikuspenak)

Azkenik, hazten/garaten ari diren ekonomien aurreikuspenak, oro har, apur bat altuagoak dira (+% 4,8 eta +% 4,7, 2022an eta 2023an) ekonomia garatuetan baino, baina ekonomia bakoitzeko ñabardura garrantzitsuak daude. Hala, Txinari emandako espektatibak (+% 4,8 eta +% 5,2) behin betiko urruntzen dira azken urteetako hazkunde tasetatik¹. Hala ere, Indiaren kasuan erakundeak hazkunde espektatiba mantendu du 2022 eta 2023rako (+% 9 eta +% 7,4); paradoxikoki, pandemiaren aurreko lau urteetan ez zen lortu². Eta, azkenik, bereziki zehurtiaz jokatu du Brasilgo (+% 0,3 eta +% 1,6) eta Errusiako (+% 2,8 eta +% 2,1) hazkunde aukerekin.

Txina % 5 inguru haziko da, 2010etik erregistratutakoa baino hazkundera profil baxuagoarekin

¹ 2010etik, %10etik behera dago (% 6,8, % 6,9, % 6,7 eta % 5,9, 2016, 2017, 2018 eta 2019an). MUNDUKO BANKUA

² BPGren urte arteko hazkundera % 8,3, % 7,0, % 6,5 eta % 4,1 izan da 2016, 2017, 2018 eta 2019an. MUNDUKO BANKUA

Estatuko zein nazioarteko hainbat erakundetatik pandemiaren albo efektuak nabarmendu dira: eskaria azkar eta aldi berean berreskuratzea, eta lehengaien, bitarteko ondasunen eta energia produktuen prezioetan duen inpaktua, hornidura kateak itotzearekin, pleiten kostuak areagotu eta eskaintza jakin bat mundu mailan ekoizle bakarrean kontzentratzeak eragiten duen oztopo argiarekin. Nazioartean partekatutako faktoreak dira, eta 2021. urtea ixtean erregistratutako inflazioaren gorakada azaltzen dute (nahiko orokortua).

Berregokitzapen ekonomiko globala, nahigabeko albo efektuekin, inflazioak gora egitea, esaterako

Izan ere, oro har, disfuntzio horietako zati nabarmen bat konpondu egingo zela adierazi zen, eta inflazio joera baretu egingo zela, hazkunde ekonomikoaren sekuentzia finkatzea erraztuz³, baina lehiakortasun galeraren arrisku potentziala nabarmentzen zen, lan kostuetara eramanez gero, eta prezioak etengabe elkarekikatzeko arriskua. Bidenabar, diru politika zabalgarrien zikloaren amaiera ere aipatu izan da, eta horrek interes tasak igotzea eragingo lukeela.

Agertoki zaharkitua, Errusia-Ukraina gerraren inpakturen zain...

Hala ere, otsaila amaieran hasitako Errusia-Ukraina gatazka belikoak sortutako tentsio geostrategikoak dagoeneko gaintu du faktoreen multzo hori, mugikortasunaren eta nazioarteko turismoaren berreskurapenarekin batera. Horren ondorioz, oraindik modu informalean⁴, aurreratu da hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenek beherantz berrikusi beharko direla, batez ere gatazkak energia prezioetan izango duen inpaktuak baldintzatuta.

Etxeen konfiantza eta aurrezpena

	2019	2020	2021	2020 IV	I	2021 II	III	IV
Etxeen konfiantza¹ eta ² (-100;+100)								
EB-27	-6,4	-14,9	-8,8	-16,0	-14,8	-6,5	-5,7	-8,0
Espainia	-7,1	-26,0	-13,4	-27,6	-22,6	-11,1	-9,1	-10,8
Etxeen aurrezpena³ eta ⁴ (gordailuak); Δ % urte artekoa	5,6	7,8	4,6	7,8	7,4	5,6	5,4	4,6

1. 2019ra arte, EB-28; 2. Hiruhilekoko datuen urteko batezbesteko datua. 3. Urteko datua abenduari dagokio; 2021 behin-behinekoa (azaroa). 4. Hiruhilekoko datua, hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteko itxierarena. Laugarren hiruhilekoa (behin-behinekoa), azaroari dagokio. Iturria: Eurostat, Espainiako Bankua

2021ean zehar Europako eta Espainiako kontsumitzaileen konfiantza indizea ezkortasunetik urrundu zen, baina laugarren hiruhilekoan okerrera egin zuen (-8,0), jarduera erabat berreskuratzeari dagokionez agertoki eszeptiko eta zuhurragoa ikusiz, kutsatzen olatuen ondoriozko muga eta murrizketen ondorioz. Hala, zuhurtzia nagusitu da, eta estatu mailako etxeen aurrezpen bilakaerak (banku gordailuak) hazkundeari eutsi dio (+% 4,6). Dirudienez, oraingoz pandemian zehar aurreztutakoa ez da kontsumora eta/edo inbertsiora bideratu.

Kontsumitzaileen ezkortasunak gora eginez bukatu zen 2021a

³ Otsaileko PMI adierazleak (55,8) urtarrieko datua hobetu zuen (52,3) eta Eurogunean ekonomia berreskurapenaren bizkortzea argi utzi zuen.

⁴ Espainiako Ekonomialarien Kontseilua, Mapfre Economics, Oxford Economics edo Espainiako Ganberen Goi Kontseilua aurreikuspenak murriztearen alde agertu dira, eta azaldu dute Espainiako hazkunde ekonomikoak (2022) ez duela % 5 gaintutako.

EAEko ekonomia

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak (2021eko abendua) EAEko BPGren hazkunde aurreikuspena +% 5,6 eta +% 6,7an mantendu zuen 2021ean eta 2022an. 2021eko emaitzek (Eustat) +% 5,6ko hazkunde ekonomikoa berretsi dute, baina aurtengo otsailean hasitako egoera belikoaren ondorioek kalte egin ahal diote 2022. urterako egindako aurreikuspenari. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak dagoeneko ohartarazi du aurreikuspenak berrikusi egingo direla. Hala ere, eta aldaketa hori onartuz, printzipioz beste entitate batzuen aurreikuspenak baino hobek ziren⁵, oro har ondorioztatu baitzuten ez zela % 6ko atalaserira iritsiko.

2022an hazkunde ekonomikoa inguruko aurreikuspen oro gatazka belikoaren garapenak baldintzatuko du (Errusia-Ukraina)

Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako koadro makroekonomikoak adierazi zuenez (2021eko abenduan), EAEko ekonomiaren berreskurapenaren gakoa kontsumo pribatuaren berreskurapena (+% 6,6) izango da eta, neurri txikiagoan, publikoa (+% 2,8) eta batez ere, inbertsio lehian (+% 6,7). Azken batean, hiru osagaiek berresten dute EAEko BPGaren susperraldia barne eskarian (+% 6,3) finkatzen dela, eta kanpoko saldoaren ekarpenarekin osatuko dela (+% 0,4). Logikoa denez, zifra horiek erreferentzia zaharkitua osatzen dute.

Euskadi. Agertoki makroekonomikoa

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	2021a	2022a	2022a			
			I	II	III	IV
BPG	5,6	6,7	6,2	6,4	7,1	6,8
Etxeetako kontsumoa	5,6	6,6	6,2	6,2	7,1	6,9
Kontsumo publikoa	3,4	2,8	3,1	2,9	2,5	2,9
Inbertsioa (FBC)	6,4	6,7	6,0	6,9	7,3	6,7
Barne eskariaren ekarpena	5,7	6,3	5,8	6,1	6,6	6,4
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	0,4	0,4	0,3	0,4	0,4
Lehen sektorea	2,2	6,2	7,8	-0,2	8,5	9,8
Industria eta energia	8,7	6,6	6,1	6,3	7,2	6,6
Eraikuntza	2,7	5,2	3,2	5,1	6,9	5,9
Zerbitzuak	4,8	6,7	6,4	6,6	7,0	6,9

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (hiruhileko txostena), (a, aurreikuspena) 2021eko abendua

Aurreikuspenak erakusten duenez, hiruhileko hazkundearen sekuentzia handiagoa izango da urteko bigarren zatian; izan ere, aurreikusitakoa baino okerragoa izan zen 2021. urtea oinarritzat hartuz kalkulatu da. Gertaera hau bereziki argia da etxeetako kontsumoaren eta inbertsioaren berreskurapenean, eta nahiko laua da kanpo saldoaren ekarpenaren bilakaerari dagokionez. Sektoreen bilakaera aurrekusiak berretsi egiten du industriaren (+% 6,6) eta zerbitzuen (+% 6,7) berreskurapena, baita –neurri txikiagoan– eraikuntzarena ere (+% 5,2). Horrez gain, hobekuntza erdua partekatua zen, urtearen bigarren zatian hazkunde handiagoaren espektatibarekin. Une honetan, eta gatazka belikoaren bilakaeraren zain, gerta daiteke urtearen bigarren zatiak okerrera egitea lehen zatiarekin alderatuta.

Jarduera guztien eta enpleguaren hobekuntza orokorra aurreikusi zen

⁵ Confebask (% 5,92), CEPREDE (% 5,7), BBVA (% 5,3) eta Hispalink (% 5,0).


Agertoki horretan, gainera, prezioen faktoreak ere grabitatzan du: 2021. urtea Bizkaian KPI Orokorren urte arteko igoera ia historikoarekin itxi zen (+% 6,3) eta 2022. urtea ildo beretik hasi da. Argudioek adierazten dutenez, energia produktuak garestitu egingo dira (udazkenaren hasieratik gora jotzeko profilarekin), eta horri gehitu behar zaizkio prestatu gabeko elikadura produktuak garestitzea; izan ere, bi faktoreak kenduta, KPIren igoera % 2,9koa izan da. Arrisku aurreratua da igoera horren indexazioa soldata eta ordainsarien errebalorizazioan eta horren ondoriozko lehiakortasun galeran. Gatazka belikoak, berriz ere, gertaera horiek gaintutuko ditu, eta inflazio presio propioa eragin du Errusia epizentroan jarri baitu, gas hornitzaile gisa.

Gatazka belikoaren ondorioak gainjarri egingo dira inflazio agertoki batean

Aurreikuspenen betetze maila eta gatazka belikoaren inpaktua alde batera utzita, egia da eskura ditugun emaitzek euskal ekonomiaren susperraldia berretsi dutela. Hala, EAEko ekonomiaren termometroak 131,3 puntuko balioa lortu zuen abenduan, eta 2021ean zehar hobekuntza progresiboa izan du, apaltzera jo duen arren.


Adierazle ekonomikoek 2021ean erregistratutako hobekuntza berretsi dute

EAEko ekonomiaren termometroa: adierazle sintetikoa



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.

EAEko enpresen espektatibak



Iturria: Enpresen konfiantza. Laboral Kutxa

EAEko enpresen espektatibek⁶, 2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, hobekuntza nabarmena adierazi zuten (47,8 puntutik 58,0 puntura): nolabaiteko baikortasuna gailendu zen, bereziki fakturazio, eskaera eta prezioen martxari dagokionez (60 puntutik gora, egonkortasun eta hobekuntza espektatibak gaindituz); errentagarritasunari dagokionez eszeptikoagoak izan dira. Baina, epe ertaineko bi adierazleek ere, enplegua eta inbertsioa, nabarmen egin zuten hobera (50,0 eta 47,5 izatetik 55,4 eta 54,5 izatera, hurrenez hurren). Hala ere, kontuan hartu behar da kontsulta otsaileko lehen hamabostaldian egin zela. Horrenbestez, ez da jaso Errusia-Ukraina gerraren inpaktua eta herrialde erasotzaileari ezarritako zigorretatik eratorritako albo efektuak.

Enpresa espektatibek hobera egin zuten...baina gatazka belikoak kalte egingo die

EAEko etxeen konfiantza

2021

	2019	2020	2021	I	II	III	IV
Etxeen konfiantza (-100 eta +100 artean)	-2,4	-22,0	-6,3	-31,6	1,7	4,6	0,0

Iturria: Euskal kontsumitzaileen konfiantza. Laboral Kutxa

Azkenik, EAEko kontsumitzaileen konfiantza indizea positiboa izan da lau hiruhilekoetatik hirutan. Hala ere, laugarren hiruhilekoko datua neutritasun atalase batean geratzen da, prezioen bilakaeraren espektatibek gogor baldintzatuta (ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko espektatibetan hobekuntza izan arren, are langabeziaren kasuan ere). Horri kutsatzen seigarren olatuaren egoera gehitu behar zaio, eta "pandemiarekin ez amaitzearen" pertzepzioa, ikusten ari ginen berreskurapena ilundu baitute.

EAEko etxeen konfiantzak "positiboan" jarraitzen du

EAEko BPG

2021eko laugarren hiruhilekoko datuek EAEko Barne Produktu Gordinak erregistratutako berreskurapena (+% 1,3) berretsi dute, gorantz egin duten sei hiruhileko lotuz. Hala, EAEko BPG % 5,6 hazi da 2021ean; oso zifra positiboa da, baina urte hasieran aurkeztutako aurreikuspenekin erkatuz gero baxuagoa izan da, ehuneko puntu bat inguru baxuagoa. Egia da hirugarren eta laugarren hiruhilekoak ez direla espero bezain dinamikoak izan, bat etorritik pandemiaren egoeraren jarraitutasunarekin eta pertsonak biltzea eragiten duten jardueri jarritako mugekin.


2021ean EAEko BPG % 5,6 hazi da

Bestalde, sektore berreskurapena berretsi egin da, lau sektore handiek jokabide positiboa izan baitute; hala, urteko balantzea positiboa izan da lau kasuetan: nabarmendu behar da industriak tiraldi gogorra izan duela (+% 9,7), zerbitzuen berreskurapena garrantzitsua izan dela (+% 5,4) eta, neurri txikiagoan, baita eraikuntzaren jarduera (+% 2,7) ere. Hori ba, termino izendunetan, ez BPGek, ez sektoreko BEGek ez dute 2019ko maila berreskuratu; une honetan 2022. urtean lortzea ere arriskuan dago.

...industriaren (+% 9,7) eta zerbitzuen (+% 5,4) "tiraldi" garrantzitsuarekin

⁶ Informazio osagarria da; izan ere, enpresa sentsibilitatea jasotzeko egitasmoa da, inkestan parte hartzen duten 400 enpresetan oinarrituz (esanahi mugatua EAEko enpresa sarearekin erkatuta), baina txosten honetan jasotako enplegu eta jardueraren atzerakada joerak berresten ditu.

EAEko BPG



Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontuak), 2015eko oinarria

EAE BPG, sektoreen arabera

	2019	2020	2021	Urtetik urterako aldakuntza tasa, %			
				I	II	III	IV
BPG	2,2	-9,9	5,6	-2,9	18,6	3,9	4,7
Lehen sektorea	5,9	-15,0	2,0	-7,1	7,8	4,6	2,6
Industria eta energia	1,4	-11,2	9,7	-1,1	30,2	5,5	4,3
Eraikuntza	2,4	-8,2	2,7	-2,4	11,5	1,3	0,5
Zerbitzuak	2,5	-9,0	5,4	-3,5	15,5	4,0	5,4

Iturria: Eustat (Kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontuak), 2015eko oinarria

EAE enpleguaren bilakaerak aurrera jarraitzen du berreskuratze erritmoan, eta 948.561 lanposturekin itxi da 2021. urtea (DOB); urte arteko igoera % 5,5koa izan da. Berriz ere, erregistratutako hobekuntza garrantzitsua da, 2020. urtea oso txarra izan eta gero; hala ere, oraindik (nahiko) urrun dago 2019ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako datutik (978.335 lanpostu); orduan, enpleguak 2008ko krisitik daturik onena lortu zuen.

Lanpostuek % 5,5 egin dute gora

Azkenik, nabarmendu behar da zerbitzuen sektoreak oso jokabide positiboa izan duela (+% 6,1); hala, enplegu terminoetan gehiago hazi da BPG terminoetan baino; egoera hori industria eta energiako egoeren justu aurkakoa da, enpleguak (+% 3,7) egin baitu gora; BEG terminoetan kontsignatutakoaren ia heren bat da (+% 9,7).


LAN MERKATUA

Populazio afiliatua

2021. urtearen bukaeran, Gizarte Segurantzako 179.776 afiliatu izan ditu Bilbok; horrek esan nahi du hiruhileko arteko igoera % 1,0 izan dela, eta 2021eko hirugarren hiruhilekoan baino 1.807 afiliatu gehiago izan dela. Eraitza horrek enpleguaren berreskurapen progresiboa finkatu du, 2020ko irailean hasi zena, enplegua suntsitzen ondoz ondoko sei hilabete igaro ondoren (2020ko martxotik abuztura). Hala, hiribilduko afiliazioa 2019ko abenduko mailara gerturatzan ari da dagoeneko (182.866 pertsona) eta bazirudien lortuko zela, 2021eko urrian eta azaroan afiliazioak adierazitako bilakaera positiboa ikusita. Baina omikron aldaera berriaren eta aldaera hori hedatzea kontrolatzeko hartutako neurrien eraginez, afiliazioa berreskuratzea moteldu egin da, eta beherakada arina izan du 2021eko abenduan.

2021. urtea ixtean Bilbo pandemia aurreko afiliazioa gerturatu da

Populazio afiliatua



Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Afiliazioaren bilakaerak jokabide desberdina izan du araubideen arabera, kontuan hartuz afiliazioak gora egin duela Araubide Orokorrean (+% 1,3, hiruhilekoen arteko tasan) eta Etxeko Langileen Araubide Berezian (+% 0,6); Langile Autonomoen Araubide Berezian atzera egin du (-% 0,2) eta, batez ere, Itsaso eta Nekazaritzako Araubide Berezietan (-% 14,1).

Enplegua "abiadura desberdinetan" berreskuratu da araubideen arabera

Hala ere, hobekuntza horiek ez dira aski eta, araubide guztietan afiliazioa 2019an (abendua) erregistratutakoa baino baxuagoa izan da. Baina, Langile Autonomoen Araubide Berezian geratu da afiliazioa erregistro horretatik gertuen (-% 0,8), eta ondoren datoz Araubide Orokorra (-% 1,8) eta hobetzeko tarte handiagoarekin Etxeko Langileen Araubide Berezia (-% 3,1) eta Itsaso eta Nekazaritzako Araubide Berezia (-% 3,9). Bestalde, nabarmendu behar da afiliazioaren zatirik handiena (guztia % 83,6) Araubide Orokorrean dagoela; ondoren dator Langile Autonomoen Araubide Berezia (% 12,5) eta beste bi araubideak, ekarpen txikiagoekin.

Populazio afiliatua, arabideen arabera

	12.2021	Δ % hiruhileko artekoa (Iraila-21)	Δ % urte artekoa (2020ko Abenduan)	Δ % Covid aurrekoa (Abendua-19)
GUZTIRA	179.776	1,0	0,5	-1,7
Araubide Orokorra	150.330	1,3	0,7	-1,8
Autonomoak	22.517	-0,2	-0,2	-0,8
Etxeko langileak	6.296	0,6	0,3	-3,1
Beste batzuk	633	-14,1	-5,8	-3,9

Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Hiribilduko afiliazioan erregistratutako berreskurapenak zerbitzuen sektorearen dinamismoa du oinarri, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta afiliazioa areagotu duen bakarra baita. Hain zuzen ere, hirugarren sektoreko afiliazioak % 1,3 egin du gora laugarren hiruhilekoan eta 162.022 pertsona afiliaturekin itxi zuen 2021. urtea (+2.140). Bestalde, lehen sektoreak (-% 15,7), industriak (-% 1,6) eta eraikuntzak (-% 1,4) afiliazioa galdu dute, nahiz eta aurreko hiruhilekoetan bilakaera positiboa erregistratu zuten.

Afiliazioaren hobekuntzak zerbitzuen sektorearen dinamismoan izan du oinarri

Urte arteko terminoetan, nabarmendu behar da sektore guztietan, lehen sektorean salbu (-% 4,2), 2020ko abenduan erregistratutako afiliazioak hobera egin duela, eta urte arteko aldakuntza antzekoak ditu industriaren eta energiaren (+% 0,8), zerbitzuen (+% 0,5) eta eraikuntzaren (+% 0,4) sektoreetan.

Zerbitzuen sektorearen analisi zehatzak erakutsi du neurri handi batean hezkuntzak⁷ ebatzi duela hirugarren sektoreko afiliazioan izandako hobekuntza; izan ere, hirugarren hiruhilekoan baino 1.423 pertsona afiliatu gehiago (+%6,6) izan dira, guztira 22.868 pertsona afiliatu. Bidenabar, gizarte zerbitzuen (+% 7,2), Administrazio publikoaren eta ostalaritzaren (+% 4,2, bi kasuetan) bilakaera positiboa ere nabarmendu behar da, baita merkataritza jardueren (+% 1,6) eta aisialdi eta kultura jardueren bilakaera ere (+% 9,1), besteak beste. Bestalde, afiliazioak atzera egin du administrazio jardueretan eta jardura lagungarrietan (-% 8,5), finantza eta aseguruarekin (-% 2,0), garraio eta biltegiatzearekin (-% 0,8) eta higiezinaren jarduerekin batera (-% 0,8).

Urteko balantzea ere oso antzekoa da; zerbitzuen sektorean integratutako 16 jardueretatik 12tan afiliazioak gora egin du, eta behera egin du 4tan. Nabarmendu behar da hezkuntza jardueren (+% 3,4), jardura profesional, zientifiko eta teknikoaren (+% 3,7) eta aisialdi eta kultura jardueren dinamismoa (+% 5,5), besteak beste; bestalde, administrazio jardura eta jardura lagungarriek (-% 6,2), finantza eta aseguru jarduerak (-% 4,5), garraio eta biltegiatze jarduerak (-% 2,1) eta gizarte zerbitzuek (-% 0,4) afiliazioa galdu dute.

Perspektiba luzeagoarekin, nabarmendu behar da hirugarren sektoreko sei jardueretan dagoeneko gaintu egin dela COVID aurreko (2019ko abendua) enplegu maila, hain zuzen ere hezkuntza jarduerak (+% 5,6), jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 4,7), osasun arloko jarduerak (+% 4,2), higiezinaren jarduerak (+% 3,6), informazioa eta komunikazioa (+% 3,4) eta Administrazio publikoa (+% 0,7).

Sei jardueretan (hirugarren sektorekoak) afiliazioa dagoeneko pandemiaren aurrekoa baino handiagoa da

⁷ Omikron aldaeraren eraginaren ondorioz erregistratutako kasuek gora egin zuten eta irakasleen kopuru handi bat lan bajaran egon da; horrek azaldu ahal du hezkuntzan afiliatutako pertsonen kopuruak gora egitea. Jokabide hori lurraldeko jardura produktibo gehienetan ere aplikatu ahal da.

Populazio afiliatua, jarduera adarraren arabera

	12.2021	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Lehenengo sektorea	338	-15,7	-4,2
Industria eta energia	8.585	-1,6	0,8
Industria	4.938	-1,6	1,2
Energia	1.029	-0,1	-1,7
Hondakinak eta ura	2.619	-2,2	1,2
Eraikuntza	8.836	-1,4	0,4
Eraikuntza	2.810	-2,0	1,0
Eraikuntzako laguntzaileak	6.026	-1,1	0,1
Zerbitzuak	162.022	1,3	0,5
Merkataritza	19.753	1,6	1,7
Administraziokoak eta lagungarriak	16.798	-8,5	-6,2
Hezkuntza	22.868	6,6	3,4
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	13.700	0,3	3,7
Administrazio publikoa	11.708	4,2	2,3
Osasuna	14.168	0,8	0,0
Gizarte zerbitzuak	9.388	7,2	-0,4
Finantza eta aseguruak	6.987	-2,0	-4,5
Garraioa eta biltegiatzea	8.754	-0,8	-2,1
Ostalaritza	9.338	4,2	1,6
Informazioa eta komunikazioak	8.906	0,2	2,2
Etxeko langileak	6.783	0,3	0,0
Aisialdia eta kulturakoak	3.863	9,1	5,5
Ostatua	1.469	0,4	5,8
Higiezinak	1.203	-0,8	2,5
Beste zerbitzu batzuk	6.337	3,2	0,6

Oharra: Hamar jardueretan, eta estatistika sekretuaren babes gisa, Gizarte Segurantzak ez du datu hori ematen; 5 pertsonatik beherakoa dela adierazten du. Klase markaren batez besteko balioarekin zuzendu egin da zenbaki datu bat emateko; hala, guztirako datua ez dator bat partiden baturarekin, garrantzitsua izango ez litzatekeen 5 afiliazioko desbiderapenarekin. Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Azkenik, nabarmendu behar da hiribildurako erreferentziazkoak diren hiriburu guztiek partekatu egiten dutela afiliazioan erregistratutako hobekuntza sekuentzia, bilakaera positiboarekin bai urte arteko terminoetan, bai hiruhilekoen artean.

Erreferentziazko hiriburu guztiek afiliazioaren hobekuntza partekatzen dute

Hala ere, estatuko hiriburuetan (G5 multzoaren batezbestekoa), oro har, jokabidea hobea izan da; izan ere, afiliazioak neurri handiagoan egin du gora (+% 2,7 eta +% 0,8, urte arteko tasak eta hiruhileko arteko tasak) EAEko hiriburuetan baino (+% 0,7 eta -% 0,6).

Bidenabar, nabarmendu behar da aztertutako hirietako batzuetan dagoeneko gainditu dutela 2019ko afiliazio maila, esaterako Sevilla (+% 3,2), Valentzia (+% 2,5), Madril (+% 0,9) eta Iruñea (+% 0,3); beste batzuetan oraindik ez da horrelakorik gertatu, esaterako Bartzelona (-% 1,1), Zaragoza (-% 0,7), Gasteiz (-% 1,6) eta Donostia (-% 1,5) eta Bilbo (-% 1,7).

EAEko hiru hiriburuetan ez da COVID aurreko afiliazio maila berreskuratu

Benchmarkina Populazio afiliatua

	12.2021	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madril	2.072.717	1,4	3,3
Bartzelona	1.119.589	0,2	2,1
Valentzia	401.345	1,1	3,7
Sevilla	373.846	1,3	3,1
Zaragoza	292.222	-0,2	1,5
G-5 batezbestekoa	--	0,8	2,7
BILBO	179.776	1,0	0,5
Gasteiz	121.948	0,3	1,8
Donostia	117.319	-0,5	-0,4
Iruñea	107.017	-1,7	0,7
G-3 batezbestekoa	--	-0,6	0,7
G-9 batezbestekoa	--	0,3	1,8

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. Iturria: Gizarteratzeko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

Kontratuak

2021eko laugarren hiruhilekoan dinamismo handia egon da Bilbon bizi den populazioaren kontratazio berrian. Hiruhilekoko metatuan 38.814 lan kontratu berri formalizatu dira; zifra horrek aurreko hiruhilekoko erregistroa hobetzen du (+% 15,0, 5.052 kontratu gehiago), eta 2020ko laugarren hiruhilekoan lortutako bolumena gainditzen du (+% 30,8 eta 9.147 kontratu gehiago). Hala ere, kontratazio maila hori oraindik 2019ko laugarren hiruhilekoko baino baxuagoa da (-% 11,4 eta 4.989 kontratu gutxiago).

Kontratazioaren berreskurapen garrantzitsua (+% 30,8 eta +% 15,0, urte arteko eta hiruhileko arteko tasetan)

Kontratazioaren bilakaera positibo hori bereziki garrantzitsua da emakumeen kasuan, eta hiruhilekoen arteko (+% 17,8 eta +% 12,3) eta urte arteko terminoetan (+% 32,6 eta +% 29,1) bultzada handiagoa izan du gizonen kasuan baino. Baina, COVID aurreko garaiarekin alderatuta, emakumeen kontratazioak atzerakada handiagoa izan du (-% 14,1) gizonena baino (-% 8,4). Adin tarte araberako kontratazioaren bilakaerak segmentu gazteenaren berreskurapen sendoagoa berretsi du (16-24 urte, +% 77,2); ondoren datoz 45 urte eta gehiagokoak (+% 27,9), 25 urtetik 34 urtera bitartekoak (+% 21,6) eta 35 urtetik 44 urtera bitartekoak (+% 16,5), baina kasu guztietan pandemia aurreko mailetatik behera daude oraindik.

Bestalde, nabarmendu behar da kontratazio mugagabearen hobekuntza handia egon dela⁸, aldi baterako modalitatea baino gehiago hazi baita, hiruhileko arteko terminoetan (+% 34,6 eta +% 12,9) zein urte artekoetan (+% 64,8 eta +% 27,5). Eta, batez ere, 2019an erregistratutako kontratazio mugagabearen mailatik gora dago dagoeneko (+% 18,2). Hala, hiribilduan bizi diren pertsonen formalizatutako kontratu berrien zatirik handiena (guztiaren % 88,8) oraindik ere aldi baterako den arren, kontratazio mugagabeak garrantzia lortu du, eta 2021eko laugarren hiruhilekoan erregistratutako kontratu guztien % 11,2 hartzen du; hiriko enpleguaren oinarria indartzen inpaktu argia du.

Dinamismo garrantzitsua du kontratazio mugagabeak, COVID aurreko mailak gaindituz

⁸ Lan erreforma indarrean sartzeak ([abendua 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua](#)) kontratazio mugagabea bultzatu du, batez ere 2022ko lehen hilabeteetan (urtarrila-otsaila), hiribilduan erregistratutako kontratu berrien % 13 inguru hartuz (urtarrila); aurreko aldietan, berriz, ekarpena % 10 baino txikiagoa zen.

Zerbitzuen sektoreak formalizatutako hamar kontratutik ia bederatzi hartzen ditu (% 87,0), eta hiruhileko arteko (+% 16,5) eta urte arteko (+% 35,1) igoerak nabarmenak izan dira. Horrez gain, eraikuntzaren jardueran (+% 2,4 eta +% 9,1) eta lehen sektoreko jardueran (+% 64,2 eta +% 15,6) kontratazioa indartu egin da; industriak eta energiak dinamismoa galdu dute hiruhileko arteko terminoetan (-% 4,0) baina horrek, hala ere, ez du urteko jokabide ona zapuztu (+% 5,3). Nolanahi ere, nabarmendu behar da sektore bakoitzeko kontratazioa 2019ko aldi berdinean kontsignatutakoa baino baxuagoa dela oraindik, lehen sektorean salbu (+% 11,5).

Hamar kontratutik ia bederatzi (% 87,0) zerbitzuen sektorekoak dira

Laburbilduz: 2021ean Bilbon guztira 129.184 kontratu berri formalizatu ziren bertan bizi diren pertsonekin, eta igoera nabarmena izan da 2020. urtearekin alderatuta (+% 20,7 eta 22.144 kontratu gehiago), baina zifra 2019an lortutakoa baino baxuagoa da oraindik (-% 20,6 eta 33.556 kontratu gutxiago).

2021eko kontratazio osoa oraindik 2019koa baino baxuagoa da

Kontratuak

	IV.2021.	Δ % hiruhileko artekoa (2021 III)	Δ % hiruhileko artekoa (IV 2020)	Δ % Covid aurrekoa (IV 2019)
GUZTIRA	38.814	15,0	30,8	-11,4
Emakumeak	19.378	17,8	32,6	-14,1
Gizonak	19.436	12,3	29,1	-8,4
16-24 urte bitartekoak	8.233	24,5	77,2	-14,1
25-34 urte bitartekoak	11.063	13,8	21,6	-9,4
35-44 urte bitartekoak	8.648	11,4	16,5	-16,0
45 urte eta hortik gora	10.870	12,5	27,9	-7,2
Mugagabeak	4.354	34,6	64,8	18,2
Aldi baterako	34.460	12,9	27,5	-14,1
Lehen sektorea	875	64,2	15,6	11,5
Industria eta energia	2.755	-4,0	5,3	-12,7
Eraikuntza	1.413	2,4	9,1	-0,4
Zerbitzuak	33.771	16,5	35,1	-12,2

Bilbon bizi den populazioak erregistratutako kontratazio berriak.
Iturria: SEPE


Erregistratutako langabezia⁹

Bilbok 22.131 enplegu eskatzailerekin bukatu du 2021. urtea (abendua), eta murrizketa garrantzitsua izan du hiruhileko arteko (-% 4,5 eta 1.038 pertsona langabetu gutxiago) eta urte arteko terminoetan (-% 12,0 eta 3.011 pertsona langabetu gutxiago); dagoeneko 2019ko abenduan erregistratutako langabezia baino baxuagoa da (-% 0,8 eta 170 pertsona langabetu gutxiago). Horrenbestez, Bilbo pandemiaren aurreko langabezia mailetara itzuli da 2020ko abuztuan lortutako balio maximoaren ondoren (27.850 pertsona langabetu), ondoz ondoko 16 hilabete hauetan zehar zuzendu dena.

Erregistratutako langabezia tasa 2019koa baino baxuagoa da dagoeneko

⁹Ez dira jaso Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (ABEEE) dituzten herritar langabeak.

Erregistratutako langabezia tasa



Iturria: SEPE

Langabeziaren hiruhileko arteko beherakada hau handiagoa da emakumeen artean (-% 6,2) gizonen artean baino (-% 2,3), baina urte arteko beherakada pixka bat hobea izan da gizonen kolektiboan (-% 13,0 eta -% 11,1). Horrez gain, bi kasuetan 2019ko zifretatik behera daude, gizonen kolektiboak bilakaera hobea izan du (-% 1,6 eta 168 langabetu gutxiago) emakumeenak baino (% 0,0 eta 2 langabetu gutxiago). Bestalde, Bilbon langabezia dauden pertsonen erdiak baino gehiago emakumeak dira (% 54,5).

Jaitsiera partekatua emakume eta gizonen artean...

Langabeziak behera egin du adin tarte guztietan, baina murrizketa handiagoa izan da adin tarte gazteenetan (-% 7,8 eta -% 8,8 16-24 urte bitartekoen eta 25-34 urte bitartekoen kasuetan), adin nagusiagoen artean baino (-% 4,3 eta -% 2,7, 35-44 urte bitartekoen eta 45 urte bitartekoen artean). Murrizketa are handiagoa da urte arteko terminoetan, aztertutako lau taldetatik hirutan bi digitukoa baita (-% 15,7, -% 22,0 eta -% 16,6 hurrenez hurren 16-24 urte, 25-34 urte eta 35-44 urteen taldeetan); adin nagusiagoko taldeak izan du beherakadarik handiena (-% 5,9, 45 urte eta gehiago) eta Bilbon erregistratutako langabetu guztien % 55 hartzen du.

...eta aplikagarria da adin tarte guztietan, baina apalagoa 45 urte eta gehiagoko artean (langabeziaren % 55)

Langabezia dagoen populazioa banakatuz gero langabeziaren erregistroan ematen duten denboraren arabera, ikus daiteke hiruhileko arteko beherakada kolektibo guztietan gertatu dela, baina beherakadarik handiena tarteko taldeetan izan da, hau da, 6 hilabete eta urtebete artean (-% 9,9) eta urtebete eta bi urte artean (-% 12,8) langabezia daramatenen kasuan.

Oro har, zenbat eta denbora gutxiago eman izena emanda, orduan eta bizkorrago

Urte arteko bilakaerak jokabide berezia erakutsi du, eta gora egin du enplegu eskatzaile gisa 6 hilabete baino gutxiago (+% 2,6) eta 2 eta 3 urte artean (+% 3,5) daramatenen kopuruak; beste kolektiboetan langabeziak behera egin du. Bestalde, nabarmendu behar da langabeziako doikuntza partekatua dela prestazioren bat kobratzen duten talde guztietan (-% 12,8 eta -% 2,1) eta jasotzen ez dutenen artean (-% 11,6 eta -% 0,2), Bilbon langabezia dagoen populazioaren % 71,5 hartuz.

Erregistratutako langabezia

	12.2021	Δ % hiruhileko artekoa (2019ko iraila)	Δ % urte artekoa (abe. -20)	Δ % Covid aurrekoa (abe. -19)
GUZTIRA	22.131	-4,5	-12,0	-0,8
Emakumeak	12.061	-6,2	-11,1	0,0
Gizonak	10.070	-2,3	-13,0	-1,6
16-24 urte bitartekoak	1.684	-7,8	-15,7	10,1
25-34 urte bitartekoak	3.556	-8,8	-22,0	-7,2
35-44 urte bitartekoak	4.708	-4,3	-16,6	-9,0
45 urte eta hortik gora	12.183	-2,7	-5,9	3,5
6 hilabetera arte	7.037	-0,8	2,6	-3,2
6 hilabete eta urte 1 bitartekoak	2.571	-9,9	-35,8	-11,7
1 eta 2 urte bitartean	3.058	-12,8	-34,4	-2,3
2 eta 3 urte bitartean	2.230	-5,9	3,5	24,7
3 urte baino gehiago	7.235	-1,4	-3,1	0,4
Ez du langabezia prestaziorik kobratzen	15.827	-4,4	-11,6	-0,2
Langabezia prestazioak kobratzen ditu	6.304	-4,6	-12,8	-2,1

Iturria: SEPE eta Lanbide.

Erregistratutako langabeziaren beherakada partekatua da, eta Valentzia eta Madril nabarmendu behar dira (-% 13,5 eta -% 11,3, hurrenez hurren). Horrez gain, hiriburuetakoz batzuk 2019ko langabezia mailatik behera daude, esaterako Bartzelona (-% 8,2), Zaragoza (-% 6,3), Sevilla (-% 1,5) eta Iruñea (-% 2,4) eta Bilbo (-% 0,8).

Bilbon eta erreferentziako hiriburuetan erregistratutako langabezia gutxitu egin da

Benchmarkina Erregistratutako langabezia tasa

	12.2021	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Madril	173.742	-11,3	-17,4
Bartzelona	63.383	-5,7	-32,5
Valentzia	54.424	-13,5	-16,7
Sevilla	65.987	-3,5	-19,7
Zaragoza	35.068	-4,3	-24,5
G-5 batezbestekoa		-7,6	-22,2
BILBO	22.131	-4,5	-12,0
Gasteiz	14.998	-4,9	-10,8
Donostia	7.367	-4,2	-15,1
Iruñea	10.659	-5,4	-21,3
G-3 batezbestekoa		-4,8	-15,8
G-9 batezbestekoa		-6,3	-18,9

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. Iturria: SEPE eta Lanbide.


Biztanleria Aktiboaren Inkesta

Biztanleria Aktiboaren Inkestako (EIN) emaitzek erakutsi dute hiribilduan bizi den biztanleria aktiboa argi eta garbi hazten ari dela, eta 176,3 mila pertsonatan kalkulatzen da (laugarren hiruhilekoa); zifra horrek aurreko hiruhilekoetako erregistroak aise gainditzen ditu, eta 2019ko laugarren hiruhilekoan lortutakoa baino altuagoa da (166,5 mila pertsona).

Horren haritik, iturri berberaren arabera hiribilduan bizi den biztanleria landuna 158,3 mila pertsonakoa da, horrek esan nahi du aurreko hiruhilekoarekin erkatuta 7,7 milakotan egin duela gora (+% 4,6) eta 2019ko laugarren hiruhilekoko erregistroa 14,6 milaka pertsonetan gainditzen duela (+% 10,2). Emaitza hau zor zaio zerbitzuen sektorean lan egiten duen populazioaren berreskurapen garrantzitsuari; aurreko hiruhilekoarekin alderatuta 9,0 mila pertsonatan hazi da (+% 7,5) eta 129,2 mila pertsona landunen kopurura iritsi da; industriak eta eraikuntzak, berriz, enplegua galdu dute (-% 11,7 eta -% 1,0).

Hala, hiribilduko enplegu tasa hazi egin da % 53,9ra arte, eta aztertutako serieko balio altuenetako bat da; langabezia tasak, aldiz, behera egin du % 10,2ko atalera arte, laugarren hiruhilekoan hiribilduko biztanleria langabetuak gora egin arren (+% 4,0; 18,0 mila pertsona).

Biztanleria aktiboa, landuna eta langabetua



Iturria: BAI (EIN)

MERKATARITZA

Bizkaian merkataritzaren sektoreko salmentek berreskurapen zabala izan dute 2021ean, eta ondoz ondoko lau hiruhileko egin dituzte hazten, lurraldean jarduera berraktibatzea baieztatuz. Laugarren hiruhilekoko emaitzek sektoreko salmenten bilakaera positiboa finkatu dute (+% 9,9), handizkako (+% 16,4) eta txikizkako (+% 6,0) segmentuak lagunduta eta ibilgailuen salmenta eta konponketaren atzerakada orekatuz (-% 9,7).

Laugarren hiruhilekoan Bizkaiko merkataritza sektoreko salmentek % 9,9 egin dute gora (urte artekoa)

Txikizkako merkataritzaren segmentuaren aurrerapena elikadurakoa ez den taldearen bilakaera positiboari dagokio (+% 12,6), elikaduraren azpisektoreak izan duen dinamismo galerearen aurrean (-% 1,0), 2020an indarrez hazi baitzen pandemiak eragindako egoeran, baina pixkanaka jarduera maila normalizatuago batera itzultzen ari da.

Sektoreari lotutako enpleguari kutsatu egin zaio jardueraren dinamizazioa eta bigarren hiruhilekoz jarraian gora egin du, 2020an suntsitutako enpleguaren zati bat berreskuratuz. Laugarren hiruhilekoko emaitzek berretsi egin dute sektore enpleguaren berreskurapen joera (+% 3,1); hala ere, 2022an finkatzeko zain dago.

Bilakaera positiboa sektore enplegura iritsi da (+% 3,1)

Merkataritza

	Urtetik urterako aldakuntza tasa, %				
	2020.IV	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV
Salmentak	-7,2	1,3	27,2	8,7	9,9
Ibilgailu motordunak saltz.-konpo.	-1,0	6,9	41,7	-14,3	-9,7
Handizkako merkataritza	-12,0	2,4	33,9	20,8	16,4
Txikizkako merkataritza*	-1,1	-0,8	15,2	-0,5	6,0
Jatekoak	6,9	0,0	-4,2	-0,1	-1,0
Gainerako produktuak	-7,7	-1,5	39,9	-0,8	12,6
Pertsona landunak	-3,4	-3,5	0,2	3,0	3,1

*Zerbitzugunerik gabeko indize orokorra.

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta duten prezio arruntak. Oinarria 2015. Iturria: Eustat

Bizkaian merkataritza saltoki handietako salmentek gora egin dute berriz ere (+% 2,4), eta pandemia hasi zenetik urte arteko aldakuntza negatiborik izan ez duen jardueretako bat da. Hala ere, nabarmendu behar da hazkunde horrek bilakaera desberdina izan duela osatzen duten bi segmentuetako bakoitzean. Hala, elikaduraren segmentuak merkataritza azalera handietako salmentei eutsi zien pandemiaren unerik latzenean (hasieran), eta elikadurakoa ez den segmentua indarrez berreskuratu da 2021eko lehen hiruhilekotik, elikadura segmentuaren dinamismo galera orekatuz. Laugarren hiruhilekoaren emaitzek bi segmentuen bilakaera desberdina berretsi dute (-% 2,2 eta +% 11,3, elikadurakoa eta ez elikadurakoa).

Saltoki handietako salmentek hazten jarraitzen dute


Saltoki handiei lotutako enpleguak berreskurapen nabarmena izan du (+% 6,6), pandemia hasieran okerrera egin ondoren, eta horri gehitu behar zaio 2019ko hirugarren hiruhilekotik sektore enplegura pairatzen ari zen atzerakada.

Saltoki handietako salmentak

	Urtetik urterako aldakuntza tasa, %				
	2020.IV	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV
Salmentak	5,9	5,2	6,8	0,4	2,4
Jatekoak	10,5	3,9	-8,2	-1,2	-2,2
Beste produktu batzuk	-2,1	7,6	52,2	2,9	11,3
Pertsona landunak	-0,5	-0,6	5,9	9,5	6,6

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta duten prezio arruntak. Hiruhilekoko datua, hileko hiru datuen batez bestekoa.
Iturria: Eustat

Saltoki handietako salmenta indizea, hileko bilakaera



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta duten prezio arruntak. Oinarria 2015.
Iturria: Eustat

Adierazi dugun moduan, ibilgailuen salmenta eta konponketa segmentua bilakaera negatiboan jarraitzen duen merkataritzako sektore bakarra da. Emaidza hau bateragarria da beste adierazle batzuek agertzen dutenarekin, esaterako Bizkaian ibilgailu berrien salmentak beherakada arina izatea hiruhilekoen artean (-% 0,2) eta laugarren hiruhilekoa 3.057 ibilgailu matrikulatu berriekin ixtea.

Bi bezero segmentuek jokabide desberdina izan dute, kontuan hartuz partikularren segmentuaren matrikulazioak gora egin duela (+% 4,9) baina ez dela aski enpresen segmentuaren atzerakada orekatzeko (-% 10,5). Horrez gain, emaitza horiek 2020ko laugarren hiruhilekokoak baino okerragoak dira, baieztatuz sektorea oraindik berreskuratzetik oso urrun dagoela. Eta, gainera, posible da pandemiaren faktorea ere gehitzea 2019tik behera egiten ari den matrikulazio joerari.

Ibilgailuen matrikulazioak ez du hobera egin

Testuinguru horretan, 2022an jardueraren martxaren inguruko ziurgabetasuna nabarmendu behar da, berreskurapen horretan osagaien eskasia konpondu behar delako (erdieroaleak), hornidura kateen jarraitutasuna eta ibilgailu berrien ekoizpena bermatzeko, matrikulazio zergaren balizko igoerak izan dezakeen inpaktuarekin batera, WLTP zikloaren arabera CO² emisioen ezarpenaren ondorioz, horrek zapuztea eragin dezakeelako kontsumitzaileek erostea erabakitzea eta, horrenbestez, autoen sektorea berreskuratzea atzeratu dezakeelako.

Ibilgailuen matrikulazioa

	urteko metatua			Zkia.	2021.IV	
	2019	2020	2021		Δ % hiruhileko arteko	Δ % urte artekoa
Guztira	20.268	15.685	12.456	3.057	-0,2	-31,2
Partikularrak	13.484	11.174	8.126	2.152	4,9	-26,4
Enpresak eta bestelakoak	6.784	4.511	4.330	905	-10,5	-40,4

Iturria: Foconauto

Hiribilduko merkataritza sektorearen adierazleek berreskurapen arina islatzen dute, inskribatutako enpresen bolumenean (2.506) zein Araubide Orokorrean afiliatutako pertsona kopuruan (19.753), aurreko hiruhilekoarekin erkatuta (+% 1,2 eta +% 1,6). Txikizkako segmentuak bilakaera positibo horretan lagundu du (+% 1,8 eta +% 3,2); hiribilduko merkataritza jardueraren zati handiena hartzen du. Urte arteko terminoetan, sektoreko afiliazioan izandako igoera nabarmendu behar da (+% 1,7); hiribilduko merkataritza sektoreari lotutako ekoizpen sareak beherakada arina izan du (-% 0,6). Azkenik, batez besteko enplegua 5,7 pertsonara igo da, eta aztertutako aldiaren hazkunde arineko profila izan du.

Bilbon merkataritza sektoreari lotutako enplegua eta ekoizpen sarea hazi egin da

Bilboko adierazleak

	2021.06	2021.09	2021.12	Δ % hiruhileko artekoa	Δ % urte artekoa
Enpresak (afiliazio kontuak)	2.484	2.476	2.506	1,2	-0,6
Handizkako merkataritza	619	615	611	-0,7	-3,0
Txikizkako merkataritza	1.692	1.685	1.716	1,8	0,2
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	173	176	179	1,7	1,1
Pertsona afiliatuak	19.282	19.437	19.753	1,6	1,7
Handizkako merkataritza	4.481	4.533	4.433	-2,2	-4,2
Txikizkako merkataritza	13.627	13.739	14.177	3,2	4,2
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.174	1.165	1.143	-1,9	-3,4
Batez besteko enplegua¹	5,4	5,5	5,7	--	--

1. Batez besteko enplegua: Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonak, kotizazio-kontuen guztizkoari dagokionez.

Iturria: GSDN

TURISMOA

2021eko laugarren hiruhilekoak turismo jardueraren berreskurapena berretsi du, eta uda garaiko erregistroen bultzadari jarraipena eman dio (orduan ia-ia pandemia aurreko mailalara iritsi baitzen). Hala ere, kutsatzeek (omikron) gora egitearen ondorioz zenbait neurri murriztaile ezarri dira berriz ere mugikortasunean eta pertsonak biltzeari dagokionez, eta horrek turismo jarduera berreskuratzea moteldu du. Izan ere, espektatibak benetan baikorrak ziren 2022ra begira, Errusia-Ukraina gatazka belikoa hasi arte; argi dagoenez, horrek eragin negatiboa izango du.

Turismo jarduera pandemia aurreko mailara gerturatzeko da

2021era itzuliz, Bilbok 391.519 ostatu gau eta 211.950 bidaiari izan zituen hotelen sarean erregistratuta. Zifra horiek jardueraren berreskurapen progresiboa islatzen dute, hain zuzen ere pandemiaren inguruabarren ondorioz erabat itota egon den jarduera honena, eta oraindik 2019ko erregistroetara iritsi ez dena (ez dauka zentzurik 2020. urtearekin alderatzea).

...estatu mailako segmentuaren berreskurapenak lagunduta, nazioarteko esparruaren jardun apalaren aurrean

Jardueraren berreskurapenean estatu mailako segmentuaren dinamismoa gakoa izaten ari da, 2019ko laugarren hiruhilekoko zifra gainditu duen (+% 0,7) ostatu gauen bolumenarekin (260.464); hala ere, horrek ez du konpentsatzen nazioarteko osagaiaren jardun okerragoa (-% 33,2), askoz berreskurapen txikiagoa izan baitu. Bi ostatu sareek berreskurapeneko joera horri eutsi diote hiruhilekotik hiruhilekora, baina oraindik jarduera maila 2019an erregistratutakoa baino baxuagoa da (-% 12,6 eta -% 17,7, hiru izar eta gehiago eta hiru izar artekoak).

Bidenabar, hiribilduan ostatu hartu duten bidaiarien kopurua pandemia aurreko bolumena baino baxuagoa da oraindik (-% 12,4), baina estatu mailako bidaiarien kasuan askoz jardun hobeia izan da (-% 1,5) nazioarteko segmentuak baino (-% 29,2). Hala, hiribilduan batez besteko egonaldia 1,85 egunekoa da, eta nazioarteko bidaiarien artean ratioa apur bat altuagoa da (1,95 eta 1,80 egun).


Turismoa

	2019.III	2019.IV	2021 III bb	2021.IV bb
Ostatu gauak	594.039	454.737	531.074	391.519
3 izar eta gehiagoko hotelak	468.455	341.431	416.368	298.308
3* baino gutxiagoko hotelak eta apopilo-etxeak	125.584	113.306	114.706	93.211
Estatukoak	252.825	258.691	354.632	260.464
Atzeritarrak	341.214	196.046	176.712	131.055
Bidaiariak	299.673	241.895	264.467	211.950
Estatukoak	128.490	147.024	171.521	144.775
Atzeritarrak	171.183	94.871	92.949	67.175
Batez besteko egonaldia	1,98	1,88	2,01	1,85

2020ko datuak ez dira jaso, ez baitira oso adierazgarriak. bb: behin-behinekoa.
Batez besteko egonaldia: ostatu-gauak/bidaiariak (egunak).
Iturria: Eustat

2021eko bigarren erdiko emaitzek oinarria jarri dute jarduera 2022an normalizatzeko. Baina egoera belikoaren ondorioz agertokia berriz ere aldatu egin da, eta eskaria berriz ere gertuko helmugetarantz bideratzea ekar dezake horrek.

Bidaiariak eta ostatu gauak hotel establezimenduetan Bilbon



Iturria: Eustat

Turismo jarduera berraktibatzea Bilbo hirirako erreferentziazkoak diren beste hirietan ere gertatu da, baina abiadura desberdinekin, 2019ko laugarren hiruhilekoari dagokionez neurtuak. Hala, soilik Gasteizen (+% 7,0) eta Donostian (+% 1,1) izan dira bilakaera positiboak; estatu mailako hirietan, berriz, 2019ko aldi berean izandakoak baino bolumen baxuagoak izan dituzte, eta tarte horretan izan dira Iruñea (-% 19,0) eta Bilbo (-% 13,9) eta, intentsitate handiagoz, Bartzelona eta Madril (-% 30,8 eta -% 21,3), nazioarteko segmentuaren ahultasunak erabat baldintzatuta.

Benchmarkina hotel gauak

	2019.III	2019.IV	2021.III bb	2021.IV bb
Madril	5.209.278	5.298.833	2.845.284	4.168.969
Bartzelona	6.187.870	4.828.840	3.287.189	3.340.732
Valentzia	1.304.969	985.361	1.114.476	896.497
Sevilla	1.487.604	1.422.636	354.392	1.205.440
Zaragoza	525.708	500.729	405.331	414.530
G-5 batez-bestekoa (hiriak)	--	--	--	--
BILBO	594.033	454.737	531.074	391.519
Gasteiz	181.795	137.045	173.328	146.630
Donostia	516.357	335.938	499.248	339.665
Iruñea	218.820	159.567	116.059	129.298
G-3 batez-bestekoa (hiriak)	--	--	--	--
G-9 batez-bestekoa (hiriak)	--	--	--	--

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. 2020ko datuak ez dira jaso, ez baitira oso adierazgarriak. bb: behin-behinekoa
Iturria: Eustat eta EIN

GARRAIOA

Itsas garraioa

Bilboko Portuko jarduerak igoera nabarmena izan du 2021eko laugarren hiruhilekoan, uda garaian galdutako tarte berreskuratuz, abenduan motelaldia pairatu arren. Hala, garraiatutako bolumena 8,3 milioi tonara iritsi da; hiruhileko arteko igoera % 8,1ekoa izan da, eta urte arteko igoera % 38,3koa. Hala ere, jarduera maila hori oraindik 2019ko laugarren hiruhilekoko baino baxuagoa da (-% 7,8).


Jarduerak gora egin du Bilboko Portuan (hiruhileko arteko tasa +% 8,1)

Emaitza ontziratutako likidoen segmentuaren dinamismoari zor zaio (hiruhileko arteko tasan +% 22,9), Bizkaiko dartsenan garraiatutako kargamentu nagusia (guztiaren % 61,2); bidenabar, atzera egin dute garraiatutako ontziratutako solidoen bolumenak (-% 24,6) eta salgai orokorrenak (-% 0,1). Bestalde, kudeatutako ontzi kopuruak behera egin du (-% 12,9), baita edukiontzietako salgaien trafikoa ere (-% 2,5).

Bilboko Portuko urteko balantzea garraiatutako salgaien 31,3 milioi tonakoa izan da; zifra horrek gaintu egiten du 2020ko erregistroa (+% 5,6) baina oraindik pandemiaren aurreko balioetatik urrun dago (-% 12,0, 2019. urtearekin alderatuta). Hala, portuko jarduerak berreskuratzeko joera finkatu du eta Portuko Agintaritzatik aurreikusi dute joera positiboari utsiko zaiola 2022an; 2023. urtean 2019ko mailetara itzultzea aurreikusi da.

Urteko balantzea (2021) positiboa da baina ez dira 2019ko emaitzak lortu

Salgaiak itsasoz garraiatzea



Iturria: Estatuko Portuak.

Aire bidezko garraioa

Loiuko aireportuak aire jardueraren normalizaziora joz itxi du laugarren hiruhilekoa, 919.617 bidaiariren kopurura iritsiz, estatu mailako jatorria daukaten bidaiarien kasuan erregistratutako dinamismo handiari esker (guztiaren % 72,3) eta nazioarteko segmentuaren hobekuntza progresiboarekin (% 27,7), nahiz eta 2019an baino ekarpen txikiagoa egiten duten (% 41,2).

Loiuk ia milioi bat bidaiarirekin itxi du 2021a

2021eko urteko balantzean ageri denez, guztira 2.580.911 bidaiari egon dira; zifra horrek jauzi kuantitatibo handia ekarri du 2020. urtearekin alderatuta, baina oraindik 2019an erregistratutako balioetatik oso urrun dago, orduan 6 milioi bidaiari inguru izan baitziren. Nazioarteko bidaiarien segmentua argi eta garbi atzerago dago pandemia aurreko balioekin erkatuta (-% 77,4); estatu mailako segmentua (-% 40,4) apur bat gehiago berreskuratu da, baina oraindik hobetzeko tarte handiarekin.

Bidenabar, laugarren hiruhilekoan 8.788 eragiketa egin ziren; zifra horrek 2020an kudeatutako lan osoa gainditzen du, eta 2021. urtea orotara 26.429 eragiketarekin ixtea ahalbidetzen du; oraindik 2019an lortutako bolumenaren erdia baino apur bat gehiago da (51.591 eragiketa).

Aire bidezko garraioa

	urteko metatua...			Zkia.	2021 IV bb	
	2019	2020 bb	2021 bb		Δ % urte artekoa	Δ % hiruhileko artekoa
Bidaiariak (kop.)	5.905.263	1.690.011	2.580.911	919.617	270,6	-18,1
Hegaldi komertzialak	5.896.412	1.683.045	2.572.996	917.108	271,7	-18,2
Estatu mailakoak	3.348.593	1.221.310	1.996.842	662.877	215,3	-24,3
Nazioartekoak	2.547.830	461.785	576.154	254.231	596,2	3,4
Eragiketak (kop.)	51.591	20.496	26.429	8.788	131,5	-13,0

bb: behin-behinekoa
Iturria: Aena

Aztertutako hirien panelarekin konparatuz gero, aireportu nagusi guztietan jarduera berreskuratu da. Hain zuzen ere, laugarren hiruhilekoan erabiltzaile kopurua uda garaiko zifra antzekoetan egon da (bidaiarien eta ostatu gauen sarrera handieneko aldia), urte hasiera apalagoa izan ondoren, aire jarduera oso mugatua izan baitzen. Baina nabarmendu behar da 2021ean aireportu guztiek hobera egin duten arren, oraindik pandemia aurreko mailen azpitik daudela.

Azken finean, 2022. urteak inflexio puntua ekarri behar zuen aire jarduna behin betiko berreskuratzeko¹⁰, agertoki horretan aurreikusi baitzen erreserbak izatea 2019. urtean lortutako mailen % 80-% 90 ingurukoak.

¹⁰Iturria: Eurokontrola

Nolanahi ere, sektorea berraktibatzea hurrengo faktore hauen mende egongo zela adierazi zen, inpaktu desberdinarekin: 1) egoera epidemiologikoaren bilakaera, 2) turismo joan-etorriak garestitzeko aukera, petrolioaren prezioek gora egin dutelako, eta horrek hegaldien tarifetan ere eragina izango duelako 3) familien turismo gasturako gaitasuna berreskuratzea eta 4) beste faktore batzuk (telelana finkatzearen ondorioz negozio bidaiak behera egitea, ingurumen inpaktu txikiagoa daukaten bidaiak moduen alternatibak). Faktore horien konbinazioaren azken emaitzak badirudi sektorearen erresilientzia gaitasuna probatuko duela.

Agertoki horretan Errusia-Ukraina gerraren inpaktua gainjarriko da, gertaera erabakigarria baita. Ziurgabetasunaz eta mundu mailako jarduera ekonomikoa berreskuratzea hausteaz gain, bi efektu zehatz nabarmendu behar dira, zuzenean jarduera honetan eragin negatiboa daukatelako: energiaren kostua eta aire espazioetara sarbide eta erabilera mugatzea. Bi efektuak konbinatuz gero aire tarifaren kostua areagotu egingo da.

Egoera belikoak oso eragin zuzena izango du aire jardueran

Benchmarkina bidaiariak aireportuak

	2019 III	2019 IV	2021 III bb	2021 IV b	% Δ 21/19	
					III	IV
Madril	17.306.191	15.143.904	8.368.015	9.241.065	-51,6	-39,0
Bartzelona	15.879.265	11.987.971	7.759.768	7.284.568	-51,1	-39,2
Valentzia	2.539.893	1.984.326	1.774.050	1.539.752	-30,2	-22,4
Sevilla	1.947.681	1.876.687	1.340.196	1.419.479	-31,2	-24,4
Zaragoza	151.099	106.331	127.924	106.827	-15,3	0,5
Metatua G-5	--	--	--	--	-35,9	-24,9
BILBO	1.752.878	1.377.784	1.122.738	919.617	-35,9	-33,3
Gasteiz	53.199	38.323	54.607	50.685	2,6	32,3
Donostia	89.063	77.798	64.032	57.762	-28,1	-25,8
Iruñea	62.705	65.626	38.434	35.902	-38,7	-45,3
G-3ko metatua	--	--	--	--	-21,4	-13,0
G-9ko metatua	--	--	--	--	-31,1	-21,9

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza. G-3: Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián eta Iruñea. G-9: G-5, G-3 eta Bilbo. 2020ko datuak ez dira jaso, ez baitira oso adierazgarriak. bb: behin-behinekoa. Iturria: Aena

EKONOMIA PRODUKTIBOA

Barne Produktu Gordina


Bizkaiko Barne Produktu Gordinak (BPG) berriz ere hiruhileko arteko igoera izan du (+% 0,9) eta lurraldeko jarduera ekonomikoaren berreskurapena finkatu egin da 2021eko laugarren hiruhilekoan. Hala, Bizkaiak hobera egin duen ondoz ondoko sei hiruhileko osatu ditu, eta 2021. urtean BPGren urte arteko hazkundea % 5,3koa izan da, 2020an erregistratutako atzerakadaren zati bat berreskuratuz (-% 9,6); hortaz, pandemiaren aurreko egoerari dagokionez jarduera ekonomikoa erabat berreskuratzea 2022. urtera arte atzeratuko da.

Bizkaiak enpleguaren eta BPGren aurrerapen garrantzitsuarekin itxi du 2021a (+% 5,3 eta +% 5,7)

Lurraldeko enpleguak hobekuntza hori partekatzen du eta 2021. urtea 485.348 lanposturekin itxi du (dedikazio osoko baliokidetzan). Emaitza laugarren hiruhilekoko jardun positiboari dagokio (+% 0,5 eta +% 5,1, hiruhileko eta urte arteko tasan). Hala ere, enplegu bolumen hori oraindik 2019ko laugarren hiruhilekoko baino baxuagoa da (-5.916 lanpostu, DOB); tarte hori murriztu egin da 2021ean zehar, eta 2022. urtean zehar ildo horrek jarraituko zuela aurreikusi zen, berreskurapen ekonomikoaren babesarekin.

Dagoeneko adierazi dugun moduan, egoera belikoa sortzea, eta horrek energiaren eta lehengaien merkatuetan duen eragina (zuzena) iritsi da industria jarduerara¹¹, bereziki energia kontsumitzaile handien kasuan. Horren haritik, apirilaren 25ean Hiruhileko Ekonomia Kontuak argitaratzean, EAEkoak eta 2022ko lehen hiruhilekoari buruzkoak, gerta zitekeen aipatutako berreskurapena finkatzea, baina, tamalez, gatazka horren lehen inpaktua eta gatazkaren ondorioak islatzen hasiko dira.

BPG Bizkaia



Iturria: Hiruhileko Kontuak (Eustat); oinarria: 2015.

¹¹ Inpaktua lurrean: Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, gatazkaren inguruko dozena bat herrialdetan ezarrita dauden Bizkaiko 235 enpresei dagoeneko erasaten die.

Industria

Bizkaiko industria jarduerak oso emaitza positiboarekin itxi zuen laugarren hiruhilekoa (+% 5,5) eta industria ekoizpenaren indizean dinamismo garrantzitsuko ondoz ondoko hiru hiruhileko osatu ditu. Hala, jardueraren aurrerapen esanguratsuekin itxi du 2021. urtea (+% 9,1), baina oraindik 2019koa baino baxuagoa da (-% 8,3).

Bizkaiko industria jardunak hobetzen jarraitzen du laugarren hiruhilekoan

Berreskurapena partekatua da industria sarea osatzen duten jardueren artean, uraren azpisektorean salbu (-% 6,1), dirudienez ez direlako berreskuratu pandemiak eragin zuen atzerakadatik. Aitzitik, beste jarduerak erakutsi dute berreskurapen garrantzitsua izan dutela, esaterako energiak, lurrunak eta gasak (+% 30,7) -pandemia hasieratik lehen aldiz hazi da- eta erauzketa industriaren azpisektoreak¹² (+% 28,6), laugarren hiruhilekoan berreskurapena finkatu baita. Azkenik, manufaktura industriak bilakaera positiboa partekatu du (+% 2,5); industria jardueraren jardun globala neurri handi batean ebazten duen jarduera da, eta lurraldeko esportazioetan ere eragina du.

Hala ere, berreskuratzea eragozten ari diren zenbait faktorek industria jarduera berraktibatzea moteldu dute. Hain zuzen ere, zenbait produktu edo lehengai hornitzeko kateetako arazoak eragina daukate, "botila lepo" modura, eta horren ondorioz produktu horien prezioak garestitu egiten dira edo produktu eskasia sortzen da; halaber, horrek eragozpen handia sortzen du EAEko industrian gako diren zenbait jarduera adarretako ekoizpenean, esaterako automozioan. Eta, berriz ere, Errusia eta Ukraina arteko gatazka belikoak lurraldeko industria jardueraren martxan izango duen inpaktuaren zain gaude, ziurgabetasun globaleko eta hornidura energetikoaren (gas) bilakaerari lotutako tentsioen testuinguruan.

Lehenagotik datozen zailtasunei eta berreskurapen hobea baldintzatzen ari zirenei gatazka belikoa gehitu behar zaie

Industria

Urtetik urterako aldakuntza tasa, %

	2020.IV	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV
Ekoizpen tasa	-11,7	-3,7	30,8	7,8	5,5
Manufaktura industria	-9,0	-3,3	37,9	11,9	2,5
Erauzketa industriak	20,7	11,6	36,7	39,6	28,6
Energia, gasa eta lurruna	-29,2	-16,5	-4,2	-13,5	30,7
Ura	-4,0	-4,9	7,4	-8,2	-6,1

Bizkaiko datua, behin-behinekoak, egutegi efektua zuzenduta. Erreferentziako aldiko agregazio indizearen urtetik urterako aldakuntza.

Iturria: Eustat


¹² Lotura estua du eraikuntzaren jarduerarekin, eta horrek ere nabarmen egin du hobera 2021ean.

Merkatuko zerbitzuak

2021. urtean Bizkaiko merkatu zerbitzuen sektorearen berreskurapen profila berretsi da, eta hobetzen ondoz ondoko hiru hiruhileko osatu ditu; hala, urtea bukatzean salmenten urte arteko igoera % 14,2koa izan da. Hortaz, laugarren hiruhilekoko zerbitzuen sektoreko indizea 118,3 puntuetara iritsi da; zifra horrek aurrerapen handia dakar aurreko hiruhilekoetan izandakoekin erkatuta eta pandemia aurreko balioetara gerturatzen da. Joera horri eutsiz gero, pentsa daiteke hurrengo hiruhilekoetan indize horren balioa 100-115 puntuen inguruan finkatuko dela, murrizketa neurriak pixkanaka arintzearekin bat etorritz, horrek normaltasun agertokira itzultzea aurreratuko lukeelako, eta hori faktore gakoa da zerbitzuen sektorean integratutako jardueren berreskurapenean.

2021. urtean Bizkaiko merkatu zerbitzuen jardueraren berreskurapena finkatu da

Merkatuko zerbitzuen salmentak



Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak (2021).
Iturria: Zerbitzuen salmenten indizea (Eustat); oinarria: 2015

Hirugarren sektorea osatzen duten jardura guztiek laugarren hiruhilekoan erregistratutako hobekuntza sekuentzia partekatzen dute, eta ostalaritzako jarduerak (+% 50,0) eta garraio eta biltegiatze jarduerak (+% 31,7) izandako emaitza positiboak nabarmendu behar dira, urte arteko igoerak oso garrantzitsuak izan baitira; horri administrazio jardueren eta zerbitzu osagarrien jardura (+% 7,4) eta informazio eta komunikazio jardura gehitu behar zaizkio (+% 1,8). Aitzitik, jardura profesional, zientifiko eta teknikoan jardueraren segmentuak atzera egin du (-% 4,9); aurreko hiruhilekoan ere nolabaiteko moteltzea ikusi zen kasu horretan (+% 0,6).

Sektoreko enpleguak bilakaera positiboa partekatzen du eta urte arteko aurrerapen leuna izan du (+%0,4), 2017ko amaieratik lanpostuak etengabe galdu ondoren eta pandemian (2020) okerrera egin eta gero.

Merkatuko zerbitzuak

Urte arteko aldakuntza tasa, %

	2021.I	2021.II	2021.III	2021.IV
Merkatuko zerbitzuak	-8,4	21,2	11,2	14,2
Garraioa eta biltegiatzea	2,4	35,2	26,9	31,7
Ostalaritza	-31,5	70,0	13,1	50,0
Informazioa eta komunikazioak	-1,2	2,9	0,6	1,8
Jard. profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-5,2	8,0	0,6	-4,9
Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak	-18,6	11,7	8,4	7,4
Landunen indizea	-3,9	-0,8	-1,0	0,4

Bizkaiko datuak, egutegi efektua zuzenduta. Uneko urteko behin-behineko datuak (2021).
Iturria: Zerbitzuen salmenten indizea (Eustat); oinarria: 2015

Kanpoko merkataritza

2021ean lurraldeko kanpo merkataritzaren jarduera gainjarri egin zaio 2020an erregistratutako atzerkadari. Hala, laugarren hiruhilekoko emaitzek erakutsi dute lurraldeko esportazioek pandemia aurreko mailak gaintzen dituztela, guztira 2.654,5 milioi euroekin, eta urte arteko terminoetan goranzko aldakuntza nabarmenekin (+% 31,9). Bilakaera positibo hori inportazioetan ere ikusi da (+% 78,0), 3.548,6 milioi eurora iritsiz. Hala, urtean kanpo merkataritzaren berreskurapena berretsi da, esportazioek eta inportazioek 2019ko mailak gaintu dituztelako.

Osagai ez energetikoak kanpo jardueraren berreskurapenaren zati handi bat berreskuratu du osagai esportatzailean (+% 25,3) eta inportatzailean (+% 47,6). Bidenabar, nabarmendu behar da bi magnitudeek bolumen osoaren % 85,5 eta % 57,3 hartzen dutela, eta aurreko hiruhilekoko balio antzekoetan mantendu direla. Hala, Bizkaian energetikoa ez den merkataritza saldoak superabita du oraindik ere (+234,8 milioi euro), eta estaldura tasa % 111,5koa da.

Bizkaiko kanpo jarduerak pandemia aurreko mailak gaintu ditu


Kanpoko merkataritza

	Balioa (milioi euro)			Urtetik urterako Δ (%)	
	2019.IV	2020.IV	2021.IV bb	2021.III bb	2021.IV bb
Esportazioak, guztira	2.374,9	2.013,1	2.654,5	35,2	31,9
Esportazio ez energetikoak	1.889,53	1.811,86	2.269,44	25,4	25,3
Inportazioak, guztira	2.799,1	1.993,7	3.548,6	57,3	78,0
Inportazio ez energetikoak	1.473,27	1.378,75	2.034,60	46,5	47,6
			<i>Partaidetza ratioa, %</i>		<i>Pren aldakuntza</i>
Energiaz besteko espor. % / espor. guztiak	79,6	90,0	85,5	-6,5	-4,5
inp. ez-energetikoen % / inp. guztira	52,6	69,2	57,3	-4,5	-11,8

Bizkaiko datuak bb: behin-behinekoa.
Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa

Kanpo jardueraren berreskurapena bat dator lurraldeko berreskurapen ekonomikoarekin eta esportazioen balioak Bizkaiko BPGren % 25,7 hartu du laugarren hiruhilekoan. Ratioa % 26,2ra igotzen da urte osoari dagokionez, eta ekarpen horrek gainditu egin ditu¹³ 2019 eta 2020ko erregistroak (% 24,3 eta % 21,8) eta 2017-2018 biurtekoan erregistratutako balioetara gerturatzeko da (% 25,9 eta % 27,7), lurraldean esportazio jardueran dinamismo garrantzitsua izanik.

Esportazioaren ratioa BPG-rekin alderatuta (%). Bizkaia



Iturria: Datacomex (Merkataritza Estatuko Idazkaritza) eta Hiruhilekoko Kontuak (Eustat, oinarria: 2015)

Hala ere, Errusia-Ukraina gerraren inpaktu zuzenak zalantzan jar dezake kanpo jardueraren berreskurapena, inplikaturako bi herrialdeekiko harreman komertzialei modu negatiboan egin dielako kalte. Batetik Errusia, herrialde erasotzaileari ezarri zaizkion zigor finantzario eta komertzialengatik, eta, bestetik, Ukraina lehengaiak eta zerealak esportatzen dituen herrialde nagusietako bat delako (eskasia eta prezioen igoera). Baina, nazioarteko merkataritza hondatzeak jarduera guztiei erasango die, mundu mailako jardun ekonomikoa baldintzatuko baitu, luze eta zabal elkar konektatutakoa.

Baina Errusia-Ukraina gerrako zehurtiaz, berreskurapena atzeratu egingo baitu

¹³ Nabarmendu behar da ratio hori zenbatzailearen eta izendatzailearen jokabideren arabera dela: normalean, hazkunde ekonomiko handiko uneetan (batez ere zerbitzuen osagaiari esker gertatzen dena), ratio horrek behera egiten du; ekoizpen industrialak azaltzen du esportazioak pisu erlatibo txikiagoa izatea, handia dirudien arren. 2020. urtean ratioaren bi osagaien beherakada izan zen, eta 2021ean industria jarduerak hobera egin du; zerbitzuen jarduera, aldiz, motelago joan da.

JARDUERA EKONOMIKOAK


Sozietate berriak

2021eko laugarren hiruhilekoan Bilbok 173 sozietate berri erregistratu ditu eta urte osoan izandako hobekuntza sekuentziarekin jarraitzen du, hirugarren hiruhilekoan bolumenak areagotu eta gero (+% 1,2, 2 sozietate gehiago). Baina, zifra hori 2019koa baino baxuagoa da (-% 4,4) eta, batez ere, 2020koa baino baxuagoa (-% 10,4); 193 sozietate berriren bolumenarekin, 2020ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoan erregistratutako dinamismo falta xurgatu du.

Bilbok eutsi egin dio sozietate berriak sortzeari

2021. urteko balantzeak Bilbon 714 sozietate berriren saldoa utzi du; zifra horrek aise gainditzen du 2020ko datua (110 sozietate gehiago), eta pixkanaka 2019ko erregistroetara gerturazten ari da, pandemia aurreko azken ekitaldi osora (58 sozietate gutxiago). Hala, 2022a urte erabakigarria izango da ekoizpen sarea berreskuratzea finkatzeko eta enpresa jardueraren nolabaiteko normaltasun egoerara itzultzeko.

Merkataritza sozietate berriak



Iturria: Merkataritza Erregistroa

Laugarren hiruhilekoan erregistratutako dinamismoa eraikuntzaren sektorearen bilakaera positiboari dagokio; 23 sozietate berrirekin, hirugarren hiruhilekoan baino 7 sozietate gehiago ditu. Jardueraren beste sektoreek dinamismoa galdu dute eta zerbitzuen sektorea nabarmendu behar da, enpresa sarearen zatirik handiena ematen baitu, 129 sozietate erregistraturekin (sozietate bat gutxiago), lehen sektorean antzemandako atzerakada berdina; industriak eta energiak, aldi berean, 20 sozietate berri dituzte (3 sozietate gutxiago).

Zerbitzuen sektorean erregistratutako beherakada hirugarren sektorea osatzen duten ia jardura guztietan gertatu da, salbu eta merkataritza eta konponketak (4 sozietate gehiago) eta higiezinaren arloko jarduerak eta zerbitzuak (10 sozietate gehiago), sozietate berriak sortzen bilakaera positiboa izan baitute.

Sozietate berriak

	2021.IV	Δ %	
		hiruhileko artekoa	urte artekoa
Merkataritza sozietate berriak	173	1,2	-10,4
Lehen sektorea	1	-50,0	0,0
Industria eta energia	20	-13,0	66,7
Eraikuntza	23	43,8	-11,5
Zerbitzuak	129	-0,8	-16,2
Merkataritza eta konponketa	23	21,1	-36,1
Ostalaritza	15	-6,3	0,0
Garraioa, bilteg., komunikazioak	4	-20,0	0,0
Finantza bitartekaritza	10	-28,6	-23,1
Jar. Higiez. eta enpresentzako zerbitzuak	52	23,8	-8,8
Beste zerbitzu batzuk	25	-26,5	-13,8

Iturria: Merkataritza Erregistroa

Bestalde, laugarren hiruhilekoan desegindako sozietate kopurua 105era iritsi da, eta hiruhileko arteko igoera nabarmena izan du (+% 45,8); jarduera horren nolabaiteko urtarokotasunak ere emaitza hori partzialki baldintzatuko luke (urtearen azken etapan desegindako sozietateen bolumen handiagoa). Hala, 2021eko ekitaldia 370 sozietate deseginekin itxi da; zifra horrek 2020an erregistratutako balioa (280) gainditzen du eta 2019koen (381) antza du. Likidazioen zati handiena zerbitzuen sektorean izan da (82), eta bereziki garrantzitsua da merkataritza eta konponketa jardueretan, beste zerbitzu batzuetan eta higiezinaren alorreko jarduerak eta enpresentzako zerbitzuen jardueran izandakoa, desegindako sozietate guztien % 60 hartzen baitute.

Desegindako sozietateak

	2021.IV	Δ %	
		hiruhileko artekoa	urte artekoa
Desegindako merkataritza sozietateak	105	45,8	-9,5
Lehen sektorea	0	--	--
Industria eta energia	6	50,0	0,0
Eraikuntza	17	70,0	70,0
Zerbitzuak	82	41,4	-18,0
Merkataritza eta konponketa	17	0,0	21,4
Ostalaritza	5	150,0	66,7
Garraioa, bilt. komunikazioak	2	--	-75,0
Finantza bitartekaritza	11	1.000,0	83,3
Higiez. alorreko jard. eta enpresentzako zerbitzuak	30	15,4	-25,0
Beste zerbitzu batzuk	17	41,7	-41,4

Iturria: Merkataritza Erregistroa

IV. hiruhilekoa 2021

	Adierazleak		
	Azken datua	Δ Urte artekoa (%)	Aldia
LAN MERKATUA			
Biztanleria aktiboa (milakotan)**	176,3	9,2	IV. hiruhilekoa
Landunak (milakotan)**	158,3	12,7	IV. hiruhilekoa
Langabeak (milakotan)**	18,0	4,0	IV. hiruhilekoa
Langabezia tasa (%)**	10,20	-2,76*	IV. hiruhilekoa
Langabe erregistratuak (pertsonek kop.)**	22.131	-12,0	Abenduan
Afiliatuak (kop.)	179.776	0,5	Abenduan
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	38.814	30,8	IV. hiruhilekoa
MERKATARITZA			
Pertsonek afiliatuak	19.753	1,7	Abenduan
Kontsumo prezioak (adierazlea)***	103,9	6,3	Abenduan
TURISMOA			
Ostatu gauak (kop.)	391.519	234,3	IV. hiruhilekoa
Bidaariak (kop.)	211.950	243,3	IV. hiruhilekoa
Batez besteko egonaldia (ostatu gauak/bidaariak)	1,85	-2,6	IV. hiruhilekoa
GARRAIOA			
Salgaien itsas garraioa (mila tona)	8.282,0	38,3	IV. hiruhilekoa
Bidaarien aireko garraioa	919.617	270,6	IV. hiruhilekoa
ENPRESA JARDUERA			
Industria ekoizpena (indizea)***	318,4	5,5	IV. hiruhilekoa
Merkataritza sozietate berriak (kop.)	173	-10,4	IV. hiruhilekoa
Desegindako sozietateak (kop.)	105	-9,5	IV. hiruhilekoa

* Ehuneko puntuak.

** Bilboko populazioa.

***Bizkaia dagokion adierazlea. KPIren bilakaera, erreferentziazko aldiko agregazio indizean oinarrituta. Oinarritzko urtea aldatzea (2021)

Iturria: Geuk egindakoa, erakunde hauen datuetan oinarrituz: Eustat, SEPE, Lanbide, Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, EIN, Foconauto, Estatuko Portuak, Aena eta Merkataritza Erregistroa.